| IRAKASKUNTZA-GIDA | 2022/23 | | |
|---|---|---|---|
| Ikastegia | 135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi | Zikl. | Zehaztugabea |
| Plana | GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua | Ikastaroa | 3. maila |

## IRAKASGAIA

| 25794 - Euskal Herriko Herri Kirolak eta Estropadak | ECTS kredituak: | 6 |
|---|---|---|

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai hau M04- Kirolen Oinarriak moduloaren barruan dago

Deskriptorea:Ikasgai honen helburua herri kirol eta arraun tradizionalari buruzko ikuspegi orokor bat ematea da. Horiek praktikatzeak gazteen heziketan izan dezakeen garrantziaz konturatzea eta era berean, oinarri tekniko, didaktiko eta oinarrizko araudiaren ezagutza izatea Hezkuntza arloan aplikatu ahal izateko. Ikasgaia Euskal Herriko Herri Kirolak eta Estropaden Funtsak denez kontuan izanda, edukiak orokorrak eta oinarrizkoak izango dira, beraien hastapenari erreferentzi eginaz, bertan aplikatu ahal izateko.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IKASGAIAREN GAITASUNAK
1. Euskal Herriko kirol tradizionalen egitura ezagutu eta ulertzea: Herri Kirolak eta arraun tradizionala.

IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Ikasleek marko orokor gisa Herri Kirol eta Tostako arraunaren egiturak, funtsetatik hasita aurreraturenetara, ezagutuko ditu bere bizitza profesionalean esku hartu ahal izateko.

2. Herri kirol eta arraunean oinarrizko egoeretan ematen diren joko ekintzak lortu, ikasleak biziko dituen egoera ezberdinen bitartez. Era berean egoera horiei aurre egiteko baliabideak eskuratu.

IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Ikasleek ekintza teknikoak ezagutu, ezberdindu eta eskola praktikoetan planteatzen zaizkion egoera ezberdinetan erabiltzeko gai izango da.

3. Ikas irakaste prozesua ezagutu eta parte hartu, tostako arrauneko eta herri kiroletako oinarri metodologikoak aztertu, etapa ezberdinetan aplikatzeko.

IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Tostako arrauneko eta herri kiroletako oinarri metodologikoetan oinarrituta, ikasleriak ikas irakaste etapa ezberdinetarako progresioak diseinatzen eta ebaluatzen jakingo du.

4. Edukiak moldatu eta Kirol hastapenean eta Soin Heziketako eskoletan erabiltzeko gai izatea.

IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Ikasleek eduki ezberdinen ikaste etapa ezberdinak zehazteko gai izango dira, Kirol hastapenean edo Soin Heziketan aplikatu ahal izateko.

ZEHARKAKO GAITASUNAK
G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea (landu eta ebaluatzen da).
IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Ikasleek egoera eta material berriak ezagutuko dituzte, aprendizai egoera berrietara egokituz eta beraien kabuz, topatuko dituzten arazoei erantzuna emanez.
G021 Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea.
IRAKASKUNTZA EMAITZAK:Ikaleak kirol giza talde ezberninentzako kirol hastapeneko saioak garatzeko gai izango dira.

## CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1.HERRI KIROLAK

I. GAI MULTZOA: Herri Kirolak

1. Jatorria eta garapena
2. Herri kirolak osatzen dituzten modalitateak

   2.1. Pisua altxatu edo eramateko modalitateak, abereen partaidetzarik gabe
   2.2. Mozteko modalitateak
   2.3. Lasterketako modalidadeak
   2.4. Soka erabiltzen duten modalitateak
   2.5. Modalidate mixtoak

II. GAI MULTZOA: Herri Kiroletako jokamoldeen analisia
1. Jatorria
2. Oinarrizko araudia
3. Modelu teknikoan deskribapena
4. Azalpen didaktikoak
5. Materialaren egokitzapena

III. GAI MULTZOA: Herri kirolen aplikazioa eskoletara
1. Modalitate bakoitzaren analisia
2. Herri Kiroletako progresioak

2. ARRAUNA

I. GAI MULTZOA: EDUKI TEORIKOAK
1.- Txalupak eta beraien historia.
  1.1.- Arrantzua eta atoi lana.
  1.2.-Lehengo txalupak eta eboluzioa.
2.- Materialen erabilpen eta ezagupena.
  2.1.-Txalupa eta bere atalak.
  2.2.-Arrauna eta bere atalak.
  2.3.-Heren-oihala eta tresneria.
3.- Nabigazioa arraunekin:
  3.1.-Boga edo abantean eta zia arraun bakarrarekin.
  3.2.-Boga edo abantean eta zia arraun birekin.
  3.3.-Patroia edo lemazaina.
4.- Nabigazioa heren-oihalekin.

5.- Estropaden erregelamendua.

## METODOLOGIA

Irakasgaiak izaera teoriko praktikoa dauka. Eskola teorikoak gelan emango dira, gela eta landa praktikak berriz kiroldegian eta urtegian.

G020 Zeharkako Gaitasuna gela praktika eta landa praktiken bitartez ebaluatuko da.
G021 Zeharkako Gaitasuna proiektu didaktikoaren bitartez ebaluatuko da.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasgelako eskola-orduak | 20 | | 10 | | | | | | 30 |
| Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a | 30 | | 15 | | | | | | 45 |

**Legenda:**

| | | |
|---|---|---|
| M: Magistrala | S: Mintegia | GA: Gelako p. |
| GL: Laborategiko p. | GO: Ordenagailuko p. | GCL: P. klinikoak |
| TA: Tailerra | TI: Tailer Ind. | GCA: Landa p. |

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 65
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 35

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketak bi modulo izango ditu: Arrauna eta Herri Kirolak. Bi zatien arteko media egiteko modulo bakoitzaren % 50a gainditu behar da.

1. Etengabeko ebaluazioa edo jarraia:

Idatzizko froga: Emaitzaren %65.
Ikasleak burutuko dituen proiektu didaktikoak: Emaitzaren %35
Bi zatiak gainditu behar dira

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

2. Azken ebaluazioa:

Idatzizko froga: Emaitzaren %30
Azterketa praktikoa: Emaitzaren % 50
Ikasleak burutuko dituen proiektu didaktikoak %20
Lehen bi zatiak gainditu behar dira.

3. Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

4. Deialdiari uko egitea.
4.1.Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
4.2.Etengabeko ebaluazioaren kasuan,ikasleak ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria.
4.3.Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

4. Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» (0,0) kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azken ebaluazioa: Ez ohiko deialdian bakarrik azken ebaluazioa egingo da. Ikasleei ikasturtean zehar lortutako emaitza positiboak gorde ahal izango zaizkie.

- Azterketa teorikoa: azken emaitzaren % 30 balioko du.
- Aztreketa praktikoa: azken emaitzaren % 50 balioko du.
- Proiektu didaktikoa: azken emaitzaren % 20 balio duena.

Lehen bi zatiak gainditu behar dira
Ikasleak ebaluazio deialdiari uko egingo dio idatzizko frogara ez bada aurkezten.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E- gela de la asignatura eta upv/ehu-ko e-mail

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

Donostia: Auñamendi.
- Aguirre, R. (1978). Enciclopedia General Ilustrada. Donostia: Auñamendi.
- Aguirre, R (1983). Deporte rural vasco. Donostia: Txertoa.
- Aguirre, R. (1989). Gure herria, juegos y deportes del pais vasco. Donostia: Kriseilu, tomo I, II y III.
- Alijostes, S. (2002). Sanjoanetako estropadak: 1930-1988. Tolosa.
- Arbex, J.C., Agirre, R. Apraiz, J.A. (2000) Ontzi tradizionalak milurteko berriaren atarian. Unzti Museua (Gipuzkoako Foru Aldundia). Donostia.
- Askoen artean. (1990). Estropadak y korrikalaris. Nosotros Los Vascos. Juegos y deportes III. Liburutik. Donostia: Lur.
- Azkue, L. (1977). Orio en el remo. 75 años de historia. Donostia: CAP. Gipuzkoa.
- Azkue, L. eta Gaztañazpi, I. (2001) Orio arrauneanarrauna Orion.Zarautz: Orioko udala kultur batzordea.
- Barandiaran, J.M. (1973). Eusko folklore: la piedra en los juegos. La gran enciclopedia vasca. Tomo V, pp.136-138. Bilbao
- Cano, L., Garcia, O. (2000). Entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak. herri kirolak. Oñate: Debarroko Euskara eta kirol zerbitzuak.
- Cayero, R., Sagastume, R. (2005). Modalidades de herri kirolak para las nuevas generaciones. En C. Urdangarin y J. Etxebeste (Ed.), Euskal jokoa eta jolasa, transmitiendo una herencia vasca a partir del juego (pp.179-197). Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Duesa, J. (1990). Nosotros los vascos. mitos , leyendas y costumbres. Donostia: Txertoa, 3ra edición.
- Duesa, J. (1990). Nosotros los vascos. mitos , leyendas y costumbres. Donostia: Txertoa, 3ra edición.
- Egibar, M. (2005). Herri Kirolak: Prácticas deportivas que de una forma específica contribuyen al fomento y al disfrute de la emoción deportiva. In C. Urdangarin, J. Etxebeste (koord.), Euskal jokoa eta jolasa. Transmitiendo una herencia vasca a partir del juego (159-177 or.). Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Egibar, M. eta Garai, B. (2009). Herri kirol jarduerak eskola kirolean: diagnostikoa eta proposamenak. Jokoak, Kirolak eta Folklore-Ikerketa Jardunaldiak ( 213-223 or.). Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Etxeberria, M. (1995). Arrauna Euskal Herrian. Donostia: Kutxa.
- Etxeberria, M. (2005) Oriotarren iraultza (1965/1975) Zarautz:Manu Etxeberria.

- Federación Vasca de Herri kirolak (1999): Reglamento.
- Fuentes, J.M., Lizarraga, K. eta Mendizabal, I. (2009). Herri-Kirolen irakaskuntzarako gida. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Idarreta, J. (2005) Arrauna ikasgaiko apunteak. 2005-06. SHEE-IVEF. Gasteiz.
- Idarreta, J. eta Zulaika, L.M. (2005) La navegación tradicional a remo una apuesta para el tiempo libre. Euskal jokoa eta jolasa transmitiendo una herencia vasca a partir del juego 239/254 Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Idarreta, J. eta Zulaika, L.M. (2005). "Arrauneko euskal batelaren bilakaera: kirola, arrantza eta aisialdia uztartuz". Jarduera fisikoa eta kirola ikertzeko I. biltzar birtuala. SHEE-IVEF. Gasteiz. CD. I.S.B.N. 84-89703-01-9.
- Irazusta, I. (1985). Técnica de remo, banco móvil. Apuntes del I. curso de entrenadores. Donostia. Federación Vasca de remo.
- Lasurtegi, J. (1985). Técnica de remo, banco fijo. Apuntes del I. curso de entrenadores. Donostia. Federación Vasca de remo.
- López de Sosoaga, A. (2005) Arrauna: portutako kirola. Jarduera fisikoa eta kirola ikerktzeko I. biltzar birtuala. SHEE-IVEF. Gasteiz. CD. I.S.B.N. 84-89703-01-9.
- ReizabaL, G. (1989). Santos pasajes de remo. Madrid: Junta puerto de Pasajes/ MOPU
- Reizabal, G. (1.987) Gora arraunak. la historia del remo vasco. Donostia: Iparragirre
- Riarte, J.L. (1973): Gure herriko joku nagusiak. Donostia: Etor.
- Urkiola, X. (1987). Práctica de enseñanza de remo. II. curso de entrenadores. Donostia. Federación Vasca de remo.
- Varios. (1991). Timonel. nº 15. Octubre. Madrid: Federación española de remo.
- Varios. (1992). Ciaboga. Nº 0. Septiembre. Donostia: Digame-Tan.
- Zulaika, LM. (2004) Unidad didáctica de un deporte tradicional en el área de educación física. Remo en banco fijo. En La formación inicial del profesorado de Educación Física ante el reto europeo CD-Rom I.S.B.N. 84-688-7992-4. A Coruña.

**Gehiago sakontzeko bibliografia**

**Aldizkariak**

**Interneteko helbide interesgarriak**

www.arabaherrikirolak.org
www.bizkaiaherrikirolak.org
http://www.herrikirolaknafarroa.org/?lang=es
www.remobancofijo.es.fm
www.avironfrance.asso.fr

**OHARRAK**